

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da,
web honetan eskura daitekeena: /
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:

www.berrikuntza.bizkaia.net
www.camarabilbao.com

Behatokia		Observatorio
Bizkaiko ekonomiaren hazkundeak egonkortasunaren ildotik jarraitu zuen 2004ko azken hilabeteetan, eta badirudi eboluzio bera izan duela 2005eko lehen hiruhilekoan.	+	El crecimiento de la economía de Bizkaia, que evolucionó en una línea de estabilidad en los últimos meses de 2004, parece mantener esta misma trayectoria en el primer trimestre de 2005.
Industriaren Konfiantza Adierazleak egonkor eutsi badio ere 2005eko lehen bihilekoan, hazkunderako joera erakutsi du.	+	El Indicador de Confianza de la Industria muestra valores estables en el primer bimestre de 2005, aunque manteniendo la tendencia de crecimiento.
Enpresen produkzio gaitasunaren erabilera %85ekoa izan da, hots, aurreko urtean baino bost puntu handiagoa.	+	Las empresas utilizan un 85% de su capacidad productiva, cinco puntos más que un año antes.
Eraikuntzaren sektoreak jarduera maila handia izaten jarraitzen du, motelduz doala nabari bada ere.	=	Aunque el sector de la construcción continúa manteniendo un apreciable nivel de actividad, se sigue apreciando una cierta ralentización de la misma.
Zerbitzuen sektorearen hazkundera jaisteko joera antzeman daiteke.	-	El sector de servicios muestra una tendencia de reducción de su nivel de crecimiento.
2005eko lehen hiruhilekoan, Portuko eta Aireportuko jarduera mailak orain arteko dinamismo berari eutsi dio.	+	A lo largo del primer trimestre de 2005 se mantiene el dinamismo de la actividad del Puerto y del Aeropuerto.
Kanpo merkataritzari dagokionez, esportazioak zertxobait moteldu dira eta inportazioak, aldiz, oso dinamiko agertu dira.	+ =	El mercado exterior se caracteriza por la leve desaceleración de las exportaciones y el importante dinamismo de las importaciones.
2005eko lehen hiruhilekoan guztira 764 sozietate berri sortu dira Bizkaian (-%1,16) eta kapitalaren guztizko ekarpena 137,7 milioi eurokoa izan da.	-	En el primer trimestre de 2005 se han creado en Bizkaia un total de 764 nuevas sociedades (-1,16%) con un capital aportado que asciende a 137,7 millones de euros.
Bizkaiko langabezi tasa %8,5ean kokatu da, hortaz, 2004ko aldi bereborean baino 0,8 puntu beherago.	+	La tasa de paro de Bizkaia se ha situado en el 8,5%, lo que supone estar 0,8 puntos por debajo de la del mismo período de 2004.
Orain arte aurreratu zaizkigun datuen arabera esan dezakegu Europako hazkunde ekonomikoa ez dela suspertzen ari. Hauek dira hobekuntza edo susperraldia eragotzen ari diren faktoreak: lehengaien prezio garestia, Europako barne eskari txikia eta ekonomia globalari aurreikusi zaion hazkunde murrizta.	-	Los indicadores adelantados hasta la fecha indican que Europa ve alejarse nuevamente la recuperación. El elevado precio de las materias primas, la debilidad de la demanda interna europea y las previsiones de recorte del crecimiento de la economía global están lastrando la tan esperada mejoría.

Industria

Bizkaiko industri sektoreak eboluzio positiboa izan du 2004an, eta badirudi bilakaera bera izan duela 2005eko lehen hiruhilekoan.

Industriaren Konfiantza Adierazleak egonkor eutsi dio 2005eko lehen bihilekoan (jatorrizko sailean), hala ere, aurreko urtean izan zuen hazkunde joera bera nabari zaio.


Produkzioa hobetu egin da 2005eko urtarril-otsailean, inkestatutako enpresen %37k (%28k 2004an) aitortu baitu produkzioa hobetzea lortu dutela, hortaz, egoera hau positiboagoa dela esan dezakegu 2004ko urtarril-otsailean %28 baitziren produkzioa hobetzea lortu zutenak. Bigarren hiruhilekorako igurikapenak oso positiboak dira: %82k uste du bere produkzioa handitu edo behintzat egonkor mantenduko dela.

Industria

El positivo comportamiento mostrado por el sector industrial de Bizkaia en 2004 parece mantener su tendencia en los primeros meses de 2005.

El Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia muestra, en su serie original, valores estables en el primer bimestre de 2005, aunque manteniendo la tendencia de crecimiento mostrada a lo largo del año anterior.

La producción aumenta en enero-febrero de 2005 en el 37% de las industrias encuestadas, un dato que refleja una situación más positiva que la del mismo período de 2004 donde era un 28% el porcentaje de empresas que se encontraba en esa situación. Las perspectivas para el segundo trimestre son claramente favorables, de modo que un 82% opina que su producción aumentará o se mantendrá estable.



Eskabide-zorroari gagozkiola, urtarril-otsailean enpresen %55ek (%49 2004an) bere eskabide-zorroa produkzio gaitasunaren arabera izan dela adierazi du, gainera, eskabide-zorro handiagoa dutela diotenen kopurua ia bikoiztu egin da: %13 2005eko lehen bihilekoan eta %7 2004an.

Azken inkesta honetan jasotako datuek diotenez, enpresen produkzio gaitasunaren erabilera %85ekoa izan da, hots, aurreko urtean baino bost puntu handiagoa.

Igurikapenak baikor jarraitzen dute, hala ere, egonkortasunerantz lerratu dira kasu guztietan. Ildo horretatik, inkestatutako enpresen %38k aurrekusi du bere produkzioa gehiago haziko dela, %27k uste du eskabide-zorro handiagoa izango duela eta, bestalde, %38k dio salmenta handiagoak izango dituela. Enpresen ustez (%75ek baino gehiagok) salmenta prezioek eta kontratazioek egonkor eutsiko diote.

Por lo que se refiere a la cartera de pedidos, en enero-febrero un 55% de las industrias (49% en 2004) consideran que la misma es adecuada a su capacidad productiva, y casi se duplica el porcentaje de quienes opinan que aumenta: 13% en el primer bimestre de 2005 frente al 7% de 2004.

Según los datos recogidos en esta última encuesta, las empresas utilizan un 85% de su capacidad productiva, cinco puntos más que el registro de un año antes.

Las expectativas continúan siendo optimistas aunque predomina, en todos los casos, la opción de la estabilidad. Un 38% de las industrias espera un crecimiento de la producción, un 27% de la cartera de pedidos y un 38% de sus ventas. Las empresas estiman también (con porcentajes superiores al 75%) que, tanto los precios de venta como las posibles contrataciones, se mantendrán estables.

Eraikuntza

Eraikuntzaren sektoreak jarduera maila handia izaten jarraitzen du, urteak aurrera egin ahala motelduz doala nabari bada ere.

Sektore honetako adierazle gutxi argitaratu diren arren, egiten hasitako babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua jaitxi egin dela (129 2005eko urtarril-martxoan eta 315 2004ko urtarril-martxoan) esan dezakegu, horrela beraz, jaitzeko joera horrek jarraituko duela aurreikus daiteke.

Zementu kontsumoari buruzko azken datuak 2004. urteari dagozkionak dira. 2004an zementu kontsumoa 660.021 tonakoa izan zen, hortaz, %18,4 gutxitu zen 2003arekin konparatuz.

Zerbitzuak

2004ko azken hilabeteetako joeraren ildo beretik, zerbitzuen sektorearen hazkundera jaitzeko joera antzeman daiteke.

Bizkaiko sektoreko enpresaburuen aburuz, txikizkako merkataritza espezializatuak 2004aren erdi inguruan hasitako jaitziera joerarekin jarraitu du 2005eko urtarril-otsailean; horrela beraz, datu horrek Bilboko Merkataritza Ganberak eginitako Merkataritzaren Konfiantza Adierazlearen bilakaera baiesten du.

Construcción

Aunque el sector de la construcción continúa manteniendo un apreciable nivel de actividad, se sigue apreciando una línea de ralentización según van transcurriendo los meses.


Se han publicado contados indicadores del sector, aunque puede servir como ejemplo de su situación el hecho del descenso en el inicio de viviendas de protección oficial (129 en enero-marzo de 2005 frente a 315 en los mismos meses de 2004) que hace prever la continuación de una tónica de gradual desaceleración.

Los últimos datos referentes al consumo de cemento corresponden a la totalidad del año 2004. En este período se alcanzaron las 660.021 tn., lo que supone una disminución del -18,4% con respecto a 2003.

Servicios


En línea con lo que sucedía en los últimos meses de 2004 el sector de servicios muestra una tendencia de reducción de su nivel de crecimiento.

Según la opinión de los empresarios del sector en Bizkaia, el comercio minorista especializado continúa, a lo largo de enero-febrero de 2005, la tendencia de descenso iniciada a mediados de 2004, una situación que confirma la evolución del Indicador de Confianza del Comercio elaborado por la Cámara de Comercio de Bilbao.




2005eko Aste Santua martxoan izateak eragin handia izan du aisia-turismo sektoreko adierazleen bilakaeran. Hartara, bada, Bizkaiko hotel establezimenduetan 160.586 bidaiari erregistratu dira 2005eko urtarril-martxoan, aurreko urteko urtarril-martxoan baino 13.300 gehiago, hortaz, %9ko hazkundera erregistratu dela ondoriozta dezakegu. Gau igarotze kopurua ere nabarmen hazi da (%10,9) eta 293.000 zenbatu dira guztira.

El hecho de que la Semana Santa haya caído en 2005 en el mes de marzo ha incidido de un modo determinante en la evolución de los indicadores del sector de ocio-turismo. Así, en los establecimientos hoteleros de Bizkaia se han registrado 160.586 entradas de viajeros en enero-marzo de 2005, alrededor de 13.300 más que en el mismo período del año anterior, lo que supone un incremento del 9%. También se ha registrado un destacado avance en el número de pernотaciones (10,9%), alcanzando un total de 293.000.



Azpiegiturak

2005eko lehen hiruhilekoan Bilboko Portuko merkatugaien trafikoak jarduera maila positiboa izan du, hala ere, ez da izan 2004koaren adinakoa, horrela beraz, %7,1 hazi da eta horrek esan nahi du 7,7 milioi tonako trafikoak egon dela. Bilakaera horren arrazoi nagusia kargatutako merkatugaien eboluzio positiboan aurki dezakegu %11,9 hazi baitira, baina deskargatutakoak, ostera, %-6,4 jaitsi dira.




Aste Santua martxoan izateak eragin positiboa izan du baita ere Bilbo-Loiuko Aireportuko bidaiari trafikoaren bilakaeran. 2005eko lehenengo hiru hilabeteetan 762.315 bidaiari erregistratu ziren. Horrela beraz, 2004ko lehenengo hiru hilabeteekin konparatzen badugu, 69.798 bidaiari gehiago (%10,1) egon dela ikus dezakegu.

Infraestructuras

A lo largo del primer trimestre de 2005 el tráfico de mercancías en el Puerto de Bilbao ha presentado un nivel de actividad positivo, aunque de menor intensidad que en 2004, con un incremento del 7,1%, lo que supone un volumen total de 7,7 millones de toneladas. Esta evolución ha venido determinada por el buen comportamiento de las mercancías cargadas que presentaron un incremento del 11,9%, mientras que, por el contrario, las descargadas disminuyeron en un -6,4%.

La coincidencia del período vacacional de Semana Santa en el mes de marzo también ha influido de un modo decisivo en la evolución, ya de por sí positiva, del tráfico de pasajeros en el Aeropuerto de Bilbao-Loiu. En los primeros tres meses de 2005 se alcanzaron un total de 762.315 usuarios. Esta cifra supone, en comparación con el mismo período de 2004, un aumento de 69.798 viajeros (10,1%).



Kanpo merkataritza


Bizkaiko kanpo merkataritzari buruzko 2005eko datuak (urtarril eta otsailekoak) eta aurreko urtekoak konparatzen baditugu, ikusiko dugu badela berezitasun bat datu horien bilakaera neurri handi batean baldintzatzen duena, izan ere, 2004an 89. arantzel kapituluko (ontziak eta ur gaineko gainerako tresnak) artikulua bat saldu baitzitzaion Trinidad eta Tobagori.

2005eko urtarril-otsaileko datuek adierazten digute Bizkaiko esportazioak guztira 761,5 milioi eurokoak izan direla, hortaz, %-24,2 jaitsi dira 2004ko urtarril-otsailaren aldean, nolabait ere, aipatu esportazio horren eragina baztertzten badugu, aurreko urteko antzeko kopuruak erdietsi direla ikusiko dugu, zertxobait jaitsi badira ere (-%0,4); inportazioak, aldiz, 1.321 milioi eurokoak izan dira eta, beraz, %32,4 hazi dira.

Comercio Exterior


Las cifras disponibles en 2005 sobre la situación del comercio exterior de Bizkaia (correspondientes a enero y febrero) y su comparativa con los resultados de un año antes vienen condicionados, en gran medida, por la excepcionalidad de una venta en enero de 2004 del capítulo arancelario 89 (barcos y demás artefactos flotantes) a Trinidad y Tobago.

En enero-febrero de 2005 las exportaciones de Bizkaia alcanzaron los 761,5 millones de euros, lo que supone una disminución del -24,2% con respecto al mismo período de 2004, no obstante, si se elimina el efecto de la exportación indicada anteriormente, se mantiene en cifras similares, con una leve disminución del -0,4%. Las importaciones, por su parte, se situaron en 1.321 millones de euros, lo que supone un aumento del 32,4%.



Enpresa dinamismoa

2005eko lehen hiruhilekoan 764 sozietate berri sortu dira Bizkaian. Kapitalaren guztizko ekarpena 137,7 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko kapitala 180.280 eurora iritsi da batez beste. Horrek esan nahi du 9 sozietate berri gutxiago dagoela 2003ko aldi berberarekin konparatuz eta, ildo beretik, batez besteko kapitala 95.000 euro gutxiagokoa izan dela.



Zerbitzuen sektorearekin lotutako jarduerak lehen postuan daude, hau da, enpresa sortu berrien %72 dira eta 33 sozietate gutxiago sortu dira. Eraikuntzaren sektorean 148 sozietate berri sortu dira, hau da, Bizkaian sortutako enpresa guztien %19 dira eta, beraz, aurreko urtean baino 29 enpresa gehiago dago. 2005eko lehen hiruhilekoan sortutako sozietateen %8 industriaren sektorekoak dira eta 2004ko urtarril-martxoan baino enpresa bat gutxiago sortu da.

Las actividades cuyo objeto social se encuentra relacionado con el sector de Servicios ocupan el primer puesto con un 72% de las nuevas empresas creadas y una disminución en 33 sociedades. En el sector de la Construcción se han constituido 148 empresas, suponiendo un 19% de las empresas creadas en Bizkaia, y presentando un incremento en 29 compañías. Un 8% del conjunto de sociedades creadas en el primer trimestre de 2005 corresponden al sector industrial, habiéndose creado una empresa menos que en enero-marzo de 2004.

Lan merkatua


2005eko lehen hiruhilekoan Eustat-ek Jardueraren araberako biztanleri inkestaren (PRA) metodologia aldatu du, eta aldaketa horrek aurreko ekitaldietako emaitzen konparazioari eragiten dio. Hartara, bada, datu berriak kontuan izanik Bizkaiko langabezi tasa %8,5ean kokatu da (%7,7an aurreko laginaren arabera), hortaz, 2004ko aldi berean baino 0,8 puntu beherago. Langabezi tasa hau euro gunekoa baino txikiagoa da (%8,9), hala ere EAEkoa (%7) baino handiagoa.

Okupazioak eta langabeziak kopuru hobeak erdietsi dituzte. Hartara, lehen hiruhilekoan 45.500 langabetu egon dira, hau da, 2004ko lehen hiruhilekoan baino 3.500 gutxiago. Okupatuak, aldiz, 11.000 gehiago izan dira eta guztira 487.200 izatera iritsi dira. Jardueraren araberako lehengo biztanleri inkestako datuei erreparatzen badiegu, askoz emaitza hobeak lortuko ditugu, alegia: 7.800 langabetu gutxiago eta 17.700 okupatu gehiago eongo lirateke.

Mercado de trabajo

Durante el primer trimestre de 2005 el Eustat ha llevado a cabo un cambio metodológico en la Encuesta de Población en relación con la Actividad (PRA) que afecta a la comparación de resultados con los períodos anteriores. Con estos nuevos datos la tasa de paro de Bizkaia se sitúa en un 8,5% (7,7% según la muestra antigua), lo que supone situarse 0,8 puntos por debajo de la correspondiente al mismo período de 2004. Esta tasa también es inferior a la de la Zona Euro (8,9%) aunque supera a la del conjunto de Euskadi (7%).

Tanto la ocupación como el desempleo mejoran sus cifras. De este modo, el número de parados se situó en Bizkaia en el primer trimestre en 45.500 personas, lo que supone una disminución en 3.500 con respecto al mismo período de 2004. La cifra de personas ocupadas, por su parte, aumentó en 11.000 alcanzando un total de 487.200. Si se utilizaran los datos de la antigua PRA las mejoras serían aún más sustanciales: el número de parados disminuiría en 7.800 personas y aumentaría la ocupación en 17.700.



BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK	Iturria	Epea	2004	2005	% 05/04
JARDUERA					
- Industriaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Urtarril-otsaila	-7	0	--
- Industri Produkzioaren Indizea (1)	EUSTAT	Martxoa	117,9	113,4	0,1
- Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh)	IBERDROLA	Urtarril-martxoa	2.024	2124	4,9
- Produkzio Gaitasunaren Erabilera (%)	CCB	Urtarril-otsaila	80	85	--
- Eskabide-zorroa (2)	CCB	Urtarril-otsaila	-30	-19	--
- Zementu Kontsumoa (milaka tona.)	OFICEMEN	Urtarril-abendua*	809,2	660,0	-18,4
- Lizitazio Ofiziala (milioi euro)	SEOPAN	Urtarril-abendua*	479	787	64,3
- Hasitako etxebizitzak	VAS-GV	Urtarril-abendua*	7.613	6.904	-9,3
- Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.)	AUT. PORT.	Urtarril-martxoa	7.163	7.670	7,7
- Loiu Aireportuko bidaiarien Trafikoa (milaka pertsona)	AENA	Urtarril-martxoa	692	762	10,1
- Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona)	EUSTAT	Urtarril-martxoa	264	293	10,9
- Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Urtarril-otsaila	-13	-20	--
ESKABIDE ETA PREZIOAK					
- Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	FCVN	I. hiruhilekoa	-5	-2	--
- Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarril-martxoa	7.640	7.200	-5,7
- Industri Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarril-martxoa	1.521	1.828	20,2
- Bizkaiko KPI	INE	Martxoa	108,6	112,3	3,4
- Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	114,2	117,6	3,0
LAN MERKATUA					
- Biztanle Okupatuak (milaka pertsona)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	476,2	487,2	3,2
- Biztanle Langabetuak (milaka pertsona)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	49,0	45,5	-7,1
- Langabezi Tasa (%)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	9,3	8,5	--
- Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona)	INEM	Martxoa	44,5	41,5	-6,9
- Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona)	MTAS	Martxoa	446,5	456,1	2,1
KANPO SEKTOREA					
- Esportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarril-otsaila	1.004,7	761,5	-24,2
- Inportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarril-otsaila	997,7	1.321,0	32,4
ENPRESA DINAMISMOA					
- Sozietateen sorrera	CCB	Urtarril-martxoa	773	764	-1,2

(1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza
* 2003 eta 2004

INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA	Fuente	Período	2004	2005	% 05/04
ACTIVIDAD					
- Indicador de Confianza de la Industria	CCB	Enero-febrero	-7	0	--
- Índice de Producción Industrial (1)	EUSTAT	Marzo	117,9	113,4	0,1
- Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh)	IBERDROLA	Enero-marzo	2.024	2124	4,9
- Utilización de la Capacidad Productiva (%)	CCB	Enero-febrero	80	85	--
- Nivel de la cartera de pedidos (2)	CCB	Enero-febrero	-30	-19	--
- Consumo de Cemento (miles Tm.)	OFICEMEN	Enero-dic.*	809,2	660,0	-18,4
- Licitación Oficial (millones euros)	SEOPAN	Enero-dic.*	479	787	64,3
- Viviendas iniciadas	VAS-GV	Enero-dic.*	7.613	6.904	-9,3
- Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.)	AUT. PORT.	Enero-marzo	7.163	7.670	7,7
- Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas)	AENA	Enero-marzo	692	762	10,1
- Pernotaciones en hoteles (miles de personas)	EUSTAT	Enero-marzo	264	293	10,9
- Indicador de Confianza del Comercio	CCB	Enero-febrero	-13	-20	--
DEMANDA Y PRECIOS					
- Índice de Confianza del Consumidor	FCVN	I trimestre	-5	-2	--
- Matriculación de Automóviles	DGT	Enero-marzo	7.640	7.200	-5,7
- Matriculación de Vehículos Industriales	DGT	Enero-marzo	1.521	1.828	20,2
- IPC Bizkaia	INE	Marzo	108,6	112,3	3,4
- Índice de Ventas del Comercio Minorista (3)	EUSTAT	I trimestre	114,2	117,6	3,0
MERCADO LABORAL					
- Población Ocupada (miles personas)	EUSTAT	I trimestre	476,2	487,2	3,2
- Población Parada (miles personas)	EUSTAT	I trimestre	49,0	45,5	-7,1
- Tasa de Paro (%)	EUSTAT	I trimestre	9,3	8,5	--
- Paro registrado (miles personas)	INEM	Marzo	44,5	41,5	-6,9
- Afiliados a la Seguridad Social (miles personas)	MTAS	Marzo	446,5	456,1	2,1
SECTOR EXTERIOR					
- Exportaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-febrero	1.004,7	761,5	-24,2
- Importaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-febrero	997,7	1.321,0	32,4
DINAMISMO EMPRESARIAL					
- Creación de sociedades	CCB	Enero-marzo	773	764	-1,2

(1) incremento con relación al mismo período del año anterior. Datos corregidos a efecto de calendario.
(2) saldo neto de respuestas
(3) incremento sobre la media del mismo período del año anterior
* 2003 y 2004

